



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

**UDALBATZARRAK 2021eko MARTXOAREN 30ean EGINDAKO
OHIKO BILKURAREN AKTA**

2021eko martxoaren 30ean, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.00etan, Inaki Irazabalbeitia Fernandez Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Inaki Irazabalbeitia Fernandez
ZINEGOTZIAK : Shrabani Aranzabe Pita
Jose M^a Aranzabe Urruzola
Concepcion Soria Legua
Unai Sorarrain Urruzola
Gillermo Jesus Otegi Zubillaga

BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DU: Koldobika Jauregi Zinkunegi

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

.../...

1. **Aurreko bilkurako aktan onespena.**
- ✓ 2021eko otsailaren 23an egindako **ohiko bilkuraren akta.**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **2020 Ekitaldiko udal aurrekontu orokorraren likidazioaren berri ematea.**
5. **Alkizako Udala eta Tolomendiren artean eginiko Lankidetzahitzarmenaren onespena, Tolosaldeko udalerrien informazio eta komunikazio teknologien dinamizazio eta aholkularitza partekatutako lanaren sustapenerako.**
6. **Tolomendiri 2021 urteari dagokion ekarpena burutzeko eskaera onestea, hala bada.**
7. **Alkizako herrian dauden zenbait berdegune eta parkeen mantenu zerbitzuaren esleipena hala bada.**
8. **2021 urterako udal zergen hobari eskaeraren azterketa, hala bada.**
9. **Alkizako San Martin parrokia-elizaren jabetzakoa den Alkiza Plaza 3 zenbakian dagoen Erretoretxearen behesolairu, bigarren solairu eta teilatu azpia eta gaur egun parkea kokatua dagoen lurra erosteko onespena.**
10. **A.S.S. eta I.U.Z. jaun/andreak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada.**
11. **Beste batzuk.**
12. **Mozioak, erreguak eta galderak.**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

.../...

LEHEN PUNTUA
AURREKO BILKURAKO AKTAN ONESPENA

- 2021eko otsailaren 23ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA
ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Ondoren, Alkizako Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 23/2021etik 59/2021ra bitarteko Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA
FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

19.13 orduak direnean Unai Sorarrain bilkura honetara bertaratzen da.

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

ELECTRICIDAD ZIZURKIL	263,42
EUSKALTEL	91,68
EBA ERKIZIA	1.209,60
CORREOS	3,74
LYRECO	193,73
IZADI	152,94
TRANSPORTES ERAUSKIN	381,15
GASOLEOS ALKORTA	240,69
BERRI LANTEGIA	3,67
AKETEGI	34,20
AKETEGI	7,60
SEIKIN	683,65
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	393,78



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

RECAMBIOS IBARRA	5,08
LAVANDERIA LIZARRA	133,28
LEFEBRE EL DERECHO	1.661,98
OSCAR GALINDO	121,00
CALPARSORO INDUSTRIAL	173,53
GAZTEZULO ALDIZKARIA	25,00
GARAJE IBARRA	305,42
MONTTE	554,18
NORTEGAS	331,66
SOLRED	59,82
ARGITU	183,42
MOVISTAR	179,08
MOVISTAR	57,52
IBERDROLA	19,47
GUREAK	5,01
QUISER	158,27
GUREAK	0,54
TECNIPLAST	1.142,71
GOIENER	21,32
GOIENER	272,27
GOIENER	83,66
GOIENER	209,48
GOIENER	83,39
GOIENER	23,95
GOIENER	40,89
GOIENER	78,17
GOIENER	206,61
GOIENER	14,88
JULEN H. ALTZELAI	110,00
MONTTE	291,65
ANTONIO ELOSEGUI	26,98
TOLOMENDI	931,35
EDURNE BENGOA	302,50
GOIENER	222,75
EKILOR	1.331,00
NAFARKOOP	2.111,45
IZFE	1.985,57
AIERT BEOBIDE	242,00



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

TINDU MARGOAK	158,18
DEKOARBERAS	124,46
SEIKIN	321,86
JOSEBA ARABAOLAZA	193,60

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **18.164,79** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

2020 EKITALDIKO UDAL AURREKONTU OROKORRAREN LIKIDAZIOAREN BERRI EMATEA

Ondoren batzarkideei 2020 ekitaldiko Udal Aurrekontu Orokorraren likidazioaren berri ematen da, 2021/27 zenbakia duen eta 2021ko martxoaren 8an Alkate Ebazpenez onartua izan zena:

2021/27 DEKRETUA

Udal honen 2020ko aurrekontuaren likidazioari buruz Kontuhartzaileak osatu duen txostena ikusirik, eta likidazio horren dokumentuak aztertu ondoren, bertan jasotakoarekin bat natorrenez, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 49.3 artikuluan emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DUT

Lehena.- Udal honen 2020ko aurrekontuaren likidazioa onartzea. Hona hemen horren laburpena:

DIRUZAINZTA GERAKINA

1.- Diruzaintzako izakin likidoak, 2020-12-31n:		67.854,69
2.- Kobratu gabeko saldoak, 2020-12-31n:		91.329,68
Aurrekontuko zordunak :	72.150,82	
Aurrekontuz kanpoko zordunak:	19.178,86	
- Aplikatu gabeko kobrantzak:	0,00	



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

3.- Ordaindu gabeko saldoak, 2020-12-31n:		55.833,02
Gastuen aurrekontuko hartzekodunak:	13.663,05	
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak:	42.169,97	
- Aplikatu gabeko ordainketak:	0,00	
4.- Diruzaintzako gerakina guztira (1+2+3):		103.351,35
5.- Saldo kobragaitzak:		0,00
6.- Gehiegizko finantzaketa lotua:		0,00
7.- Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (4-5-6):		103.351,35

AURREKONTUKO EMAITZA

1.- Aurtengo aurrekontuko eragiketen emaitza:		-75.015,67
2.- Aurreko ekitaldietan likidatutako aurrekontuetako eragiketen emaitza:		-0,00
3.- Doiketak, diruzaintzako gerakinaren bidez finantzatutako obligazioengatik:		119.835,59
4.- Doiketak, finantzaketa lotua duten gastuen desbiderapenengatik:		0,00
5.- Aurrekontu emaitza (1+2+3+4):		44.819,92

KREDITU GERAKINAK

1.- Txerta daitezkeen kreditu gerakinak:		62.460,16
2.- Txertatu ezin diren kreditu gerakinak:		82.904,67
3.- Kreditu gerakinak, guztira (1+2):		145.364,83

Bigarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

Hirugarrena.- Udalbatzari dekretu honen berri ematea hurrengo bileran.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Batzarkideak jakinaren gainean gelditzen dira.

BOSTGARREN PUNTUA

ALKIZAKO UDALA ETA TOLOMENDIAREN ARTEAN EGINIKO LANKIDETZA-HITZARMENAREN ONESPENA, TOLOSALDEKO UDALERRIEN INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN DINAMIZAZIO ETA AHOLKULARITZA PARTEKATUTAKO LANAREN SUSTAPENERAKO.

Ikusirik Tolomendi Landa Garapen Elkarteak informazio eta komunikazio Teknologien inguruan aholkularitza eta dinamizazio zerbitzua partekatua sustatzen dutela, baliabideen erabilpen eraginkorrago batean laguntzeko eta udalak erakundeak IKT inguruan egunean egoteko.

Ikusirik Alkizako Udalak interesa duela goian aipaturiko zerbitzu partekatua erabiltzeko. Horretarako dagokion hitzarmena prestatu delarik.

Gaia azterturik, Udaletxe honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udala eta Tolomendi Landa Garapen Elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena onestea, Tolosaldeko Udalerrien informazio eta Komunikazio Teknologien dinamizazio eta Aholkularitza lanaren sustapenararako.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria ahalmen du aipaturiko lankidetzaz hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Tolomendi Landa Garapen Elkarteari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

TOLOMENDIRI 2021 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEKO ESKAERA ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Landa Garapen Elkarteak- "Tolomendi-k" aurkeztutako idatzia non 2021eko martxoaren 10ean ospatutako Batzar Orokorrean 2021 ekitaldirako Elkartearen aurrekontua onartu zela jakinarazten den.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik 2021 ekitaldirako onartutako aurrekontuaren arabera Alkizako Udalari 3.151,95 euro ordaintzea dagokiola.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Tolosako Landa Garapen Elkarte-Tolomendiri 3.151,95 eurotako gastua onartzea eta ekarpena burutzea. Udal aurrekontuetako 422.943.01.01 partidaren kargura.

BIGARRENA.- 2021 urteko udal aurrekontu orokorrean kreditu nahikoa aurreikustea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO HERRIAN DAUDEN ZENBAIT BERDEGUNE ETA PARKEEN MANTENU ZERBITZUAREN ESLEIPENA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako herrian dauden zenbait berdegune eta parkeen mantenu zerbitzuak kontratu bidez esleitzeko beharrean agertu dela Alkizako udala, herri langilearen lan zama oso handia delako.

Lan hauek egiteko Iratze Lorezaintza S.L. enpresari aurrekontu bat eskatu zaio, kontratu txiki baten aurrean agertzen garelako.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek, aho batez,

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Iratze Lorezaintza S.L. enpresari Alkizako herrian dauden zenbait berdegune eta parkeen mantenu zerbitzuak kontratatzeko onespina ematea, urte beteko kontratua izango da eta aurrekontua 4.540,79 euro direlarik.

BOSTGARRENA: Aipaturiko gastuak 2021 aurrekontuetako 1 0000.210.171.00.01 Kontu sailaren kargura egitea.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Iratze Lorezaintza S.L. enpresari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

2021 URTERAKO UDAL ZERGEN HOBARI ESKAERAREN



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik 2021 urterako udal zergen hobari deialdia onestu zela, ondasun higiezinaren gaineko zergaren kasuan, famili ugariak izateagatik eta eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezinaren kasuetan eskatu daiteke, eta Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kasuan, famili ugaria izateagatik eta motorraren arabera eskatu daitezke.

Ikusirik Alkizako Udalak, 2021ko otsailaren lehen deialdia zabaldu zuela, hobari edo bonifikazio eskaerak egiteko, azken eguna 2021eko otsailaren 28-a izan zelarik.

Ikusirik, goian aipaturiko epean 18 hobari eskaera egin direla, hauetatik, 10 eskaera famili ugariak izateagatik eta eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta izateagatik, ondasun higiezinaren gaineko zergen, eta 8 eskaera, famili ugaria izateagatik, trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergen.

Ikusirik, hemezortzi eskaera hauek baldintza guztiak betetzen dituztela aipaturiko hobariak jasotzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Ondoren zehazten diren zergen hobari eskaera hauek onestea:

TITULARRA	EGITATE ZERGAGARRIA	HOBARIA
I.Z.S.	IBI-EGUZKI PLAKAK	%25
A.G.A.	IBI-EGUZKI PLAKAK	%25
M.D.A.	IBI-EGUZKI PLAKAK	%25
A.E.G.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
M.K.M.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
I.U.Z.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
U.U.I.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
M.A.U.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
J.G.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
A.M.	IBI-FAMILI UGARIA	%30
N.B.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
U.O.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

J.G.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
M.A.U.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
U.U.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
I.U.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
G.G.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50
A.E.	IBILGAILUAK-FAMILI UGARIA	%50

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuei ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO SAN MARTIN PARROKIA-ELIZAREN JABETZAKOA DEN ALKIZA PLAZA 3 ZENBAKIAN DAGOEN ERRETORETXEAREN BEHESOLAIRU, BIGARREN SOLAIRU ETA TEILATU AZPIA EROSTEKO ONESPENA

Ikusirik Alkizako San Martin Parrokia-elizaren titulartasunekoa den eta Alkiza plazako 3 zenbakian dagoen ondasun higiezinak kostu bidez eta zuzenean erosteko interesa duela Udalak, erabilera publiko balioaniztunerako egokiak diren kokapenari, irisgarritasunari, perimetro-formari eta azalerari lotutako ezaugarriak dituelako. Aipaturiko ondasunaren deskribapena ondorengo izango da, Tolosako Jabetza erregistroan inskribatuta dagoena:

“UNO Y TRES. Piso entresuelo y segundo, destinados a viviendas, que lindan por todas partes con los generales de la casa. Tienen trescientos nueve metros y cincuenta decímetros cuadrados. Se valoran, el departamento número uno en 33% y el departamento número dos en un 33,50%. Estos departamentos llevan como anejo el desván de la casa, forman parte de la CASA CURAL, sita en el casco de la población de Alquiza, señalada con el número catorce, que consta de cuadra, dos pisos y desván.

TITULO: Tomo 441, Libro 15 de Alkiza, Folio 186, Finca 392, CRU 20005000915617”

Ikusirik, 2020ko urriaren 1ean, Donostiako Elizbarrutiko Kontsultoreen Elkargoak, onespena eman zuela Alkizako apaiz-etxearen salmentarako, ondorioz, Alkizako San Martin parrokia-elizak konpromisoa hartu zuen arestian aipatutako higiezinaren jabari osoa Alkizako Udalarari 240.000,00 euroan eskualdatzeko.

Ondasun higiezinak zuzenean eskuratzeko espediente hau izapidetzeko aplikatu beharreko legeriari eta jarraitu beharreko prozedurari buruz Idazkaritzak 2021ko martxoaren 23ko txosten juridikoa aztertu da.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik 2021eko martxoaren 25eko txosten teknikoa eta 2021eko martxoaren 26ko memoria, non jasotzen baitira bai higiezinaren balorazioa eta ezaugarriak, bai higiezina erabilera publiko balioaniztunerako zuzenean erosi behar dela egiaztatzeko eta justifikatzeko agiriak.

Ikusirik memoria horretan justifikatzen dela zuzenean eskuratzeko prozedura erabiltzea espediente honen xede den higiezina eskuratzeko prozedurarik egokiena dela, eta, beraz, ez dagoela lizitazio prozedura publikorik, kasu honetan inguruabar hauek gertatzen baitira bereziki:

-Alkiza Plaza 3ko eraikina, hau da, Erretore-etxea bezala ezaguna, XIX. Mendearen hasieran altxatutako eraikina da. Herriko plazan dago kokatua beste eraikin dotazioenarekin batera: frontoia, eskola eta San Martin eliza. Herriko etxerik handiena izanik.

-Eraikina dotazionaltzat, EKIPAMENDUKO SISTEMA OROKORRA, jotzen da gaur egun indarrean dagoen Arau Subsidiarioen arabera eta orain lantzen ari den Plan Orokor berrian kalifikazio hori aldatzeko asmorik ez dago. Beraz, Udal jabetzakoa izateko aukerarekin, interes orokorra bermatzen dela esan daiteke, bertan aurreikusten diren erabilpenak interes orokorra helburu izanik.

-Eraikinak lau oin, soto bat eta jardin bat ditu. Oin bakoitzak 310m²-ko azalera du, sotoak 102 m²-ko azalera eraikia eta 500 m²-ko jardina ditu. Harrizko egitura du; harrizkoak dira kanpoko hormak eta barneko euste-hormak. Teilatu berria du. Eraikinak 3 jabe ditu: Partikular batek sotoaren eta jardinarekin jabegoa du. Alkizako Udala lehen oinaren jabea da, bertan udal liburutegia eta erabilera anitzeko gela bat daude. Azkenik, eraikinaren beste zati osoa eta eskuhartze honek helburu duena Alkizako San Martin Parroki-elizarena da. Eraikinaren 2 eta 3 solairuak barnetegi/eskola moduan usatuak izan dira 40 urtetan. Azken bi urtetan berriz, eskola berriaren eraikitzeak erabilera hori etetea ekarri duelarik.

- Alkizako San Martin Parroki-elizaren jabetzakoa den Alkiza Plaza 3ko zatiaren eskuhartzearekin, Alkizako udalak Erretore etxean turismo eskaintza indartuko duen gune bat sortu nahi du eta Eusko Jaurlaritzaren Sailaren Euskal Girote barnetegietako bat berriz ere Alkizan kokatzea lortuko balitz urte askotan eman zaion erabilerari berriro ekingo zaio.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik Udal Kontu-hartzaitzaren 2021eko martxoaren 29ko fiskalizazio txostena, aurrekontuko baliabide arruntei dagokienez eragiketaren portzentajeari eta aurrekontuan dirurik egoteari buruzkoa.

Ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren 11. artikuluan, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duenaren 11. artikuluan eta Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 116. artikuluan ezarritakoa bete da.

Kontuan izanda espedientea behar bezala arrazoituta dagoela eta proposatzen den prozedura bat datorrela kontratazioaren arloan indarrean dagoen araudiarekin, Idazkaritzaren txostenean adierazitakoarekin bat etorritz. Txosten horretan, halaber, adierazten da kontrataziorako organo eskuduna Udalbatza dela, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen Bigarren Xedapen Gehigarriaren 9. atalean xedatutakoarekin bat etorritz, izan ere, kontratuaren zenbatekoa 240.000,00 eurokoa da, indarrean dagoen Udal Aurrekontuko baliabide arrunten % 10 gainditzen duelako.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak honek, aho batez,

ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Alkiza plazako 3an dagoen eta Alkizako San Martin parrokia-elizakoa den higiezina zuzenean erostea onartzea, higiezin hori bereziki egokia delako eta eman nahi zaion erabilerarako ezaugarri egokiak eta beharrezkoak dituen beste higiezinik ez dagoelako.

BIGARRENA.- Gastua xedatzea indarrean dagoen gastuen aurrekontuko 682.920.00.01 kontu-sailaren kargura.

HIRUGARRENA.- Udalbatza honetako Alkate-Lehendakariari ahalmena ematea erabaki hau eraginkorra izan dadin beharrezkoak diren dokumentuak sinatzeko.

LAUGARRENA.- Erabaki hau Alkizako San Martin parrokia-elizari, higiezinaren jabeari, jakinaraztea eta kontratua sinatzeko zitazioa egitea notarioaren aurreko eskritura publikoaren bidez.

HAMARGARREN PUNTUA

A.S.S. ETA I.U.Z. JAUN/ANDREAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik A.S.S. eta I.U. Jaun/andreak eginiko eskaera, non azaltzen duten Peru Bidea kaleko 5 zenbakiko 1-B etxebizitza, trastelekua eta garajea salgai jartzeko asmoa dutela. Etxebizitza hau Alkizako S1 sektorearen barruan tasatuak zeuden etxebizitzaren artean dago.

Aipaturiko bizitza eta bere eranskinei buruz esan, administrazio baldintzako pleguetan etxebizitzaren transmisioa arautzen zela, lehentasunezko erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea 30 urtetan Alkizako udaletxearen esku geratuaz.

Guzti hau ikusirik, A.S.S. eta I.U. Jaun/andreak Alkizako udaletxeari jakitera ematen diote Peru bidea kaleko 5 zenbakiko 1-B etxebizitza, trasteleku eta garajea saltzeko asmoa dutela, eta Udaletxeari aukera ematen diote lehentasunezko erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea egikaritzeko.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- Alkizako Udalak uko egiten dio, Peru bidea kaleko 5 zenbakiko 1-B etxebizitza, trasteleku eta garajearen lehentasunezko erosteko eta atzera eskuratzeko eskubideari.

BIGARRENGOA.- A.S.S. eta I.U. Jaun/andreaki jakinarazi, aipaturiko etxebizitza eta bere eranskinak ezingo dituela saldu, Udalak finkatutako prezioa baino garestiago. Hau da, Udal Aholkulari teknikoak 2021urteko martxoaren 12ko txostenean finkatzen dena. Erabaki honi erantzen zaio.

HIRUGARRENGOA.- A.S.S. eta I.U. Jaun/andreaki jakinarazi, saltzen duen etxebizitza eta bere eranskinak Alkizako Udalarekin lotura izan beharko dutela 30 urte arte falta zaizkion urte kopuruarengatik.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri A.S.S. eta I.U. Jaun/andreaki ematea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

Presazko arrazoiak direla eta gai zerrendan ez zeuden ondorengo puntuak aztertzea erabaki dute bertaratuek aho batez.

11.1. ARANGUREN ERREKAKO ITURRIAREN KONTSESIO ESKAERA CONFEDERACIÓN HIDROGRAFICA DEL CANTABRICORI



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik, oraintxe arte Zizurkilgo Udalak Alkizako Aldapa bailaratik pasatzen den Aranguren errekatik, Ikilisagasti baserritik gertu, edateko ura hartzeko kontzesioa izan duela. Horen bidez, 19 l/s-ko emaria hartzeko aukera izan du.

Halaber, iturri horretatik Alkizako hainbat etxe urez hornitzen dira.

Confederación Hidrográfica del Cantábrico delakoak helarazi dio Alkizako udalari ebazpen bat non aukera ematen dion udal honi Zizurkilgo udalak baliatzen zuen ur-hartunea baliatzen jarraitzeko, beti ere, Alkizako udalak interesik izango balu.

Ikusita, herriko hainbat etxetako ur-hornikuntza Aranguren errekatiko hartunetik egiten denez Alkizako udalak egoki irizten dio ur-hartunea erabiltzen jarraitzeko Confederación Hidrográfica del Cantábricok eginiko eskaintzari.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Confederación Hidrográfica del Cantábricori jakinaraztea Alkizako udalak, Aranguren errekatiko ur-hartunea erabiltzen jarraitu nahi duela eta eskatu egiten diola hartunearen eraisketa bertan behera uztea.

HAMABIGARREN PUNTUA
MOZIOAK, ERREGUAK ETA GALDERAK

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakariorde Jaunak bilkura 20.00-etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.

IDAZKARIAK

